335/2026 EBAZPENA, maiatzaren 26koa, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Zuzendari Nagusiarena, "Euskaran biDelagun 2026-27" euskarazko programa hezigarrirako deialdia onartzen duena. Nafarroako eremu ez euskalduneko D ereduko ikastetxe publikoetako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago eta 2026-2027 ikasturtean egingo da.

Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuak txosten bat aurkeztu du deialdi hori onartzea proposatzeko. Gehienez ere 24 saio egingo dira izena emandako talde bakoitzeko, astean bat. Saio horiek honela banatuko dira: 8 saio 2026eko irailetik abendura bitartean, eta 16 saio 2027ko urtarriletik ekainera bitartean. Programa 48 talderi esleituko zaie gehienez.

Programaren helburua da ikasleen ahozko ulermena eta adierazpena indartzea eta ikasgelako eguneroko jardueren osagarri den errefortzu didaktiko bat eskaintzea, ikasleek hizkuntza-tresna gehiago eskura ditzaten eta gaitasun hobea lor dezaten komunikazio-trebetasunetan.

Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 245/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

1.- Nafarroako eremu ez euskalduneko D ereduko ikastetxe publikoetako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako programa hezigarriaren deialdia onartzea. Deialdia 2026-2027 ikasturtean eginen da, eta oinarriak ebazpen honen eranskinean jasota daude.

2.- Ebazpen hau eta bere eranskina www.educacion.navarra.es (Hezkuntzako berriak) eta wwww.navarra.es (Tramiteak) helbideetan argitaratzeko agintzea.

3.- Deialdi honen eta berori aplikatzeko administrazio-egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izanen zaio Hezkuntzako Kontseilariari, hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazi, argitaratu edo jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

4.- Ebazpen hau eta bere Eranskina Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuari, Hezkuntzako Ikuskapenaren Zerbitzuari eta Euskara Atalari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta hogeita seiko maiatzaren hogeita seian.

HEZKUNTZAKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO
ZUZENDARI NAGUSIA

Gil Sevillano González